

## ZARAUZKO Udal Jarraipen Foroa

### EGUNA/LEKUA:

- Otsailak 22, asteazkena, 10:00-11:15.
- Zarauzko Etxezabal eraikina.

### PARTAIDEAK:

#### ZARAUZKO UDALA

- Gloria Vazquez: Agenda 21 eta Ongizateko zinegotzia
- Nekane Iribar: Partaidetza, Euskara, Hezkuntza eta Kultura zinegotzia
- Unai Egaña: Bide Hezkuntzarako arduradun teknikoa
- Arantza Aldalur: Hezkuntza Departamentuko arduraduna
- Nerea Ollokiegi: Partaidetza eta Agenda 21 Departamentuko arduraduna

#### IKASTETXEAK

- Antoniano Ikastetxea: Iñaki Erostarbe koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- La Salle Ikastetxea: Patxi Pagola koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Lizardi Institutua: Jone Irastorza koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Oteitza Lizeoa: Ainhoa Mateos koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Orokieta Herri Eskola: Silvia Martinez koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.
- Salbatore Mitxelena Ikastola: Belen Gonzalez koordinatzailea eta ikasle ordezkariak.

#### ARAZI

- Eneko Salaberria, [arazi@arazi.eus](mailto:arazi@arazi.eus)

### HELBURUAK:

- 2015-2016 ikasturtean EKITATEaren inguruan udalari egindako proposamenen kudeaketa zertan den ezagutzea.
- EKITATEaren inguruan bai eskolek zein ikasleek azken urtean emandako urratsak ezagutzea.
- Bestelako aipamenak egiteko aukera izatea.

### SAIOAREN BILAKAERA:

Gloria Vazquezek bertaraturiko guztioi ongietorria eman eta Udal jarraipen Foroaren helburuak aipatu ondoren, bildutako guztien aurkezpena egin da. Jarraian, 2015-2016 ikasturteko udalbatzarrean Zarauzko ikasleen eskutik jasotako proposamenen inguruko azterketa egin dute udal ordezkariak:

- **2015-2016 ikasturteko 1go Proposamena:** Jolas parke ugari dago Zarautzen, baina antzeko jolasekin. Beraz: **Jolas mota gehiago nahi genituzke: arrokak, salto egitekoak, barruan sartzekoak, sokarekin gora eta behera egitekoak, zuhaitzetan etxetxo...**  
*Udalaren erantzuna: **Auzoz auzo izeneko programan** barneratuta dago, eta bertan 20.000€ko diru-partida dago parkeen mantenu eta hobekuntzarako (umeena zein helduena). Hala ere merkatuan zer dagoen jakiteko azterketa egingo da. Rosaledan eta Aritzbataldeko plazan 3.adinerako parkeak jarri dira. Saioaren amaierako galderetan, **galdera berregina** da eta erantzun hau gehitu da: *Salbideko parkea estali egingo da. Gainera, aurtengo aurrekontua 20.000€koa da, baina datorren urtean eta ondorengoetan bestelako aurrekontuak izango dira eta proposamena kontutan izango da.**

#### 2016-2017 ikasturteko Udal Jarraipen Foroan aipaturikoa:

Salbideko parkea estaltzeko lanak hasi dira. Horretaz gain, jolasteko gune bat kendu eta berria jarriko dute. Zuek eskatutako jolas desberdina horietako bat izan dadin saiatuko gara. Antzeko saiakera egingo dugu Pilar parkean: bertan zegoen jolas bat arriskutsua zelako kendu dugu eta berria jartzekotan gaudenez, berezia izan dadila eskatuko dugu.



- **2015-2016 ikasturteko 2.Proposamena:** Gure galdeketaren ondorioz etorkinak gure herrira etorri direnean hiru arazo nagusi aurkitu dituzte:
  - Hizkuntza dela eta komunikatzeko arazoa.
  - Lana aurkitzeko arazoa, gehienetan prekarioak, ostalaritzan gehienbat, lan asko eta soldata eskasak.
  - Alokairuko etxebizitza aurkitu ezina.

Beraz: **Udaletxeak herrian etorkinei laguntzeko dauden bolondres taldeei lagundu diezaiola. Iritsi berri direnean harrera talde bat sortu, aterpetxe batera zuzendu ahal izateko. Lana aurkitzeko webgune bat sortu eta bertako erabiltzaile izateko herrian dauden ordenagailu zentrutako erabilera erraztu. Etorkinek etxe bat alokairuan hartzeko lege aholkulariren batek adierazi beharko lizkieke beraien eskubide eta betebeharrak eta etxejabeak ere babestuta sentitu beharko liriateke etxea alokatu dezaten.**

*Udalaren erantzuna: Ez da erraza norberaren jaioterria utzi eta urrutira joatea bizitzera. Ez dira bizitoki berriko ohiturak, hizkuntzak eta baliabideak ezagutzen. Hori gertatzen zaie gurera iristen diren bizilagun berri askori, batzuk Nikaragutatik datoz, beste batzuk Errumaniatik, baita Pakistandik ere eta beste hamika tokitatik. Lan egitera etortzen dira, etorkizun oparago baten bila, bai beraienzat eta batez ere baita beraien familientzat ere. Batzuk gaztelaniaz hitz egiten dute (gehienek) eta horrek erraztu egiten du beraien egokitzapena baina beste batzuk ez dute gaztelaniaz hitz egiten eta are gutxiago euskaraz.*

*Udaletxetik uste dugu denok garela zarauztarrak eta berdin dela bakoitza non jaiotakoa den eta herrira noiz iritsi den. Baina jabetzen gara kanpotik etorri direnek badauzkatela desabantaila batzuk, hori dela eta **Udalak bi esparrutan** jarduten du:*

*1- Adin txikikoentzat euskarazko errefortzu programa, gure hizkuntza ikasi dezaten.*

*2- Adin nagusikoentzat: Harrera programa: Euskara-harrera ikastaro trinko batetik, paperak ateratzeko aholkularitza zerbitzua, Zainketa enpleguari buruzko informazioa, eta atzerriko ikasketa agiriak homologatzeko informazioa ematen dugu.*

*Oso interesgarria da proposatzen duzuen bertako jendearekin bolondres taldea sortzeko, benetan erraztuko lukeela etorri berrien integrazioa eta gainera harreman-sare bat emango liekete. Udaletxetik saiakera batzuk egin ditugu hori lortzeko baina momentuz ez dugu lortu, nolahi ere etorri berrien integrazio eraginkorra lortu nahi badugu argi daukagu zuek aipatutakoa dela jarraitu behar dugun bidea.*

*Hala, **Zarauztik Mundura eta Mundutik Zarautza** ekimenaren bitartez antolaturiko bazkarian parte hartzeko gonbidapena luzatuta dago.*

#### **2016-2017 ikasturteko Udal Jarraipen Foroan aipaturikoa:**

Aurreko saioan esan genuenez, kanpotik etorritakoen harrera eta egokitzapena bi esparru berezitan lantzen dugu: batetik nagusiekin eta bestetik adin txikiekin.

Kontuan izan behar dugu gure herriko egoera ekonomikoa ez dela garai batean bezain oparoa eta horrek bizilagun berrien etorrerari eragiten dio; ondorioz, bi dira iristen ari diren perfil nagusiak: a) hasieran behintzat etxeko lanetan aritzeko asmoarekin datozen emakume erta-amerikarrak b) Zarautzen urte batzuk egin dituztenen seme-alabak adin txikiekin.

Talde bakoitzak bere lanketa behar du:

- Nagusientzat: harrera programa dugu, non euskara, lan arloko eskubideak (batez ere etxeko lana arloan), paperei buruzko informazioa, eta atzerriko ikasketa agiriak hemen baliagarriak izateko laguntza eskaintzen zaien: 2016an 196 lagun pasa ziren saio horietatik.
- Adin txikikoentzat: Udaleko hainbat sail ari gara elkarrekin lanean, denon artean erantzun bateratu bat emateko. Hauek dira indarrean ditugun berriazko programak

- Euskarako errefortzuak (LHko 23 ikasle eta DBHko 26 ikasle).
- Ikaslagun programa.
- Familia berriz elkartu duten gurasoentzat laguntza programa.

Horietaz gain, Udaleko baliabideak erabiltzen ditugu etorri berrien integrazio eta egokitzapena laguntzeko: Gaztelekua, kale hezitzaileak, eta abar.

- **2015-2016 ikasturteko 3.Proposamena:** Emakumeak lantegi askotan emakume izateagatik soldata baxuagoak dituzte. Beraz: **Gizarte honetan, non emakumeak eremu gehienetan desabantailan dauden, gobernua desabantaila horiek ekiditeko neurri zuzenak hartzea.**

*Udalaren erantzuna: Oso inportantea da hartu duzuen konpromisoa. Bakoitza bere bizian pertsona guztiak errespetatu behar ditu. Baita etxeko lanak banandu familia osoaren atean, mutilek eta neskek lan berberak egin ditzakezue eta.*

*Enpresetan ere, emakumeek zein gizonek lan berbera egiteko gaitasuna daukagu eta lan berberagatik soldata berbera kobratzeko. ONDO ESATEN DUZUEN BEZALA, ENPRESA batzuetan gizonek emakumeek baino soladata handiagoa daukate lan berbera egiteagatik. Horri brecha salarial deitzen zaio.*

*Udalak ez dauka zereginik **enpresa arlo** honetan. Baina zeozer egin dezakegu. Udal ordenantza garatzen ari gara, berdintasunaren aldeko hainbat irizpide kontutan hartzeko. Adibidez, udalak enpresa bat kontratatzeko eskatu genezake enpresa horretan soldaten desberdintasun horiek ez egotea. Eta askoz gauza gehiago ere. Beharbada, zeozer berri egin ditzakegu arlo honetan Zarauzko enpresetan berdintasun irizpideak lantzeko. Pentsatuko dugu.*

*Baita **sentsibilizazio kanpainak** ere egin ten ditugu, orokorrean, emakumearen eskubideak errespetatzeko. Oso garrantzitsua da gizarte osoa eta bereziki mutilek eta gizonek berdintasuna errebindikatzea. Zuek, neska eta mutilek, modu desberdinean bizi behar duzue, gauzak aldatzeko. Inor ez baita besteok baino hobeto neska hala mutila izateagatik. Hori da feminismoa defendatzen duena.*

#### 2016-2017 ikasturteko Udal Jarraipen Foroan aipaturikoa:

2017an, martxoaren Udalbatzarrean Berdintasun ordenantza onartuko dugu. Ordenantzan gai honekin lotutako artikulua bat jarri dugu:

Zarauzko Udaleko Parekidetasun Departamentuak lan berezi bat egiten ari da Udalean Berdintasun Ordenantza bultzatzeko.

Ordenantza horretan, arreta berezia jartzen zaio Udalak kontratatzen dituen enpresetan ez egoteko emakumeekiko diskriminaziorik, bereziki soldataren inguruan. Ordenantza horretan hainbat neurri onartzen du Zarauzko Udalak berdintasuna bultzatzeko.

- **2015-2016 ikasturteko 4.Proposamena:** Udalak erabilpenik gabe duten guneak, aterpe gisa erabili (etxe bizona moduan egokitu).

*Udalaren erantzuna: Alde batetik daukagu 16 babes ofizialeko **etxebizitza** eta 6 pisu larrialdetarako. Adibidez, tratu txarrak jasaten dituen emakume bat hauetako pisu batean bizi daiteke bere egoera konpondu arte.*

*Bestetik, etxegabeei babesa ematen diegu Diputazioarena den eraikin batean, Igerain aterpearen atzean. Diputazioak Udalari baimena ematen digu **eraikin hori erabiltzeko azarotik, martxora** bitartean. Zerbitzu hori erabiltzen duten pertsona gehienak ez dira zarauztarrak. Kanpotik etortzen dira, Gipuzkoan horrelako leku gutxi daudelako. Beste herri batzuetan ere horrelako etxeak irekitzea garrantzitsua da. Onena izango zen pertsona hauen egoera zuzentzea. Ongizate departamentuaren lan ildo bat da kale gorrian inor ez geratzeko laguntza eman eta daudenak laguntzeko.*

*Bost hilabete horietan guztira pertsona erabili dute zerbitzu hori. Gauero 15 pertsona lo egin dezakete etxe honetan. Aurten zabaldu dugu zerbitzu hau. Lehen bakarrik lo egiten zuten, baina orain arratsaldeko 6etan sartzen dira eta goizeko 11etan atera. Bitartean, afaria prestatzen dute, dutxa hartu, arropa garbitu, ordenadorean ibili eta bar. Bazkaria taberna batean ordaintzen diegu. Lortu nahi dugu egunen zehar ere irekita egotea. Gainera lan bat egiten dugu pertsona hauek gizarteratzeko. Pertsona hauek dauzkaten arazoak egoera honetan egoteko anitzak dira eta ez da erraza. Baina aurten, sistema berri honekin lortu dugu 8 pertsona gizarteratzeko prozesu bat hastea eta hori pozgarria da benetan.*

2016-2017 ikasturteko Udal Jarraipen Foroan aipaturikoa:

- Negu etxearen inguruan ez daukagu berririk. Orain irekita dago eta gauero 15 pertsona daude, arratsaldeko 19:00tik goizeko 9ak arte. Diputazioak tarte horretan erabiltzeko baimena eman digu eta.
  - Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentuak hartuko duen beste neurri bat da etxebizitza bat erabili etxerik gabe dauden zarautzarrentzat. Programa berezi bat prestatzen ari gara pertsona hauei laguntzeko.
- **2015-2016 ikasturteko 5.Proposamena:** Azken 9 urteetan Espainian 612 emakumezko erahilak izan dira bere gizonezko bikotearen eskutik. Urterik beltzena 2010 izan zen erahildako 85 emakumeekin. Iaz 64 emakume izan ziren indarkeriaren biktima. Beraz: **Gobernuak, udaletxeak mehatxupean bizi diren emakumeak babestea, horrelako egoeretan dauden emakumeei entzun eta lagundu. Ikastetxeetan sistematikoki programak lantzea etorkizuneko genero indarkeria ekiditeko.**

*Udalaren erantzuna: Zarauzko udalak lan inportante bat egiten du tratu txarrak jasaten duten emakumeak laguntzen. 2010 urtetik, Zarautzen gertatuko tratu txarren kasuak 30 izan dira, batzbestekoa. Kasu hauetan batzuk gizonek jasaten duten, baina bakarrik kasu guztietatik %4a izaten dira. %96a emakumeen kontrako tratu txarrak dira. Ongizate departamentuan **gizarte langile** bat espezializatua dago gai honetan eta emakume hauek laguntzen ditu egoera hori gainditzeko. Baita diru laguntzak daude, larrialdietarako pisuak eta zerbitzu psikologikoa beraiek eta bere seme alabak bizi diren arazoa gainditzeko. Koordinatzen gara ertzaintza eta anbulategiarekin tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak ahalik eta hobeto laguntzeko. Dena den, ez dakigu egoera horretan dauden emakume guztiak ezagutzen dituzten laguntza hauek. Horregatik, **sentsibilizazio kanpainak** egiten ditugu, ezagutarazteko eta baita denon artean arazo horrekin bukatzeko.*

*Azaroaren 25 da tratu txarrak kontrako eguna. Egun horretan Emakundek garatzen duen Beldur barik kanpainan parte hartuko dugu eta parte hartzeko aukera izango duzue. Zarauzko Udalak **Hezkidetzak programak** garatzen ditu zuen ikastetxe guztietan. Orain programa berri bat sartu dugu, whatsapp tailerra da eta DBH 3 mailan egingo dugu ikastetxe guztietan. Konturatu garelako whatsapp eta sare sozialen bidez ere tratu txarrak gertatzen direla gaur egun, gazteen artean. Ezagutzen baduzue tratu txarreko kasu bat irakasleei esan, dudarik gabe.*

*Baita ere, aurten **hezkidetzak foroa** sortu dugu ikastetxe, PAREKIDETASU SAILA eta berritzeguneren artean, Zumaian eta Zarautzen. Momentuz. Martxoaren 8an giza katea egin genuen, gogoratuko duzuen eta atzo homofobia eta transfobiaren eguna ospatzeko arcoiris pankartak jarri zenituzten ikastetxeetan eta hemen udaletxean.*

Tratu txarrak Zarautzen:

Primera atención						
	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Servicios sociales	14	16	10	13	17	6
Ertzaintza	11	7	11	21	13	15
Centro Salud Mental	1	0	9	2	1	1
Ambulatorio	sin datos	sin datos	sin datos	sin datos	6	?
<b>Total</b>	<b>26</b>	<b>23</b>	<b>30</b>	<b>36</b>	<b>37</b>	<b>22</b>

Victimas por sexo						
	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Mujeres	25	23	29	36	32	22
Hombres	1	0	1	0	5	2
<b>total</b>	<b>26</b>	<b>23</b>	<b>30</b>	<b>36</b>	<b>37</b>	<b>24</b>

2016-2017 ikasturteko Udal Jarraipen Foroan aipaturikoa:

Indarkeria jasaten duten emakumeei arreta hobea emateko Protokoloa martxan jarraitzen du, martxoan 2016ko memoria aztertzeko eta koordinazioa ebaluatzeko bilera egingo dugu.

2017an protokoloa berrikustea aurreikusten dugu.

Hezkuntza: herriko ikastetxe guztietan berdintasuna, heziketa afektibo eta tratu onak lantzeko eta indarkeria prebenitzeko heziketa programak garatzen ditugu: Lehen hezkuntzako eta DBHko maila guztietan, eta Batxilergoko eta Zikloetako 1. Mailan.

Watsappen bidez indarkeriari aurre egiteko programa DBHko 3. Mailan landu dugu.

Hezkidetza Foroa: 2016an elkarrekin hainbat ekimen gauzatu genituen: martxoaren 8an, maiatzaren 17an eta azaroaren 25ean.

2017an beste udalerrri batzuk sartu dira foroan: Orio, Getaria eta Aia

Martxoaren 8aren inguruan herri hauetako ikastetxe eta maila guztietan gaia landuko dute, eta egun horretan bertan giza-katea egingo dute eta adierazpen bat irakurri eta bertsoak botako dituzte.

Zoritzarrez, 2016an 37 kasu tratatu dira Zarautzen, batez ere, gizarte zerbitzuetan eta ertzaintzan. Oso kezka garria da.

Azaroaren 25ean, jardunaldi batzuk antolatu genituen gai horren inguruan. Emakume abokatuak, psikologoak eta biktimak ere egon ziren. Guztion artean gaian sakondu genuen eta hori dela eta, gure protokoloa eta gizarte langileak biktimizekin egiten duen lana hobetzeko proposamenak aztertzen ari gara. Ildo horretan, bilerak egin ditugu jada anbulatorio, ertzaintza eta udaltzaingoko arduradunekin.

Baita ere, egun horretan ikastetxeetan Hezkidetza foroaren barruan ekintza bat egin zenuten eta Parekidetasun sailak bertso jaialdi bat antolatu zuen, gaia honen inguruan sentsibilizazioa lantzeko.

Gehitu behar dut, gizarte zerbitzuetan terapia saioak eskaintzen ditugula indarkeria matxistaren biktimak sufritu duten gaingiditzen laguntzeko. (Galdetu zenbat pertsona joaten ari dira orain talde terapiara).

Baita ere, Parekidetasun Departamentuak jabetze eskola eskaintzen du emakumeak indartzeko. Hori ere oso garrantzitsua da indarkeria matxistari aurre egiteko.

- **2015-2016 ikasturteko 6. Proposamena:** Zebrabide batzuetan kotxeak ez dira gelditzen eta azkarregi pasatzen dira (suhiltzaileen parekoan, San Pelaion Beasain aldea, Salbide eta Azken Portu lotzen dituen). Beraz: **Zebrabideetan kotxeak polikiago joateko neurriak hartu (badenak, semaforoak...).**

*Udalaren erantzuna: Helduentzako heziketa prestatzen ari gara, haiek baitira akats gehien burutzen dituztenak. Bestetik, guztion erantzukizuna oso garrantzitsua da.*

#### 2016-2017 ikasturteko Udal Jarraipen Foroan aipaturikoa:

Mugikortasun osasuntsua eta segurua lantzeko ikastetxez ikastetxe ikastaroak egiten dira. 6 urtetik hasi eta heziketa maila guztietara zabalduz, beti ere autonomiaz eta segurtasunez mugitzeko gaitasunak garatzeko asmoz. Arriskuak hauteman, kudeatu eta erabaki egokiak hartzeko gaitasunetan oinarrituta.

Mugikortasun arloa lehentasunak helburuak eta lan ildoak finkatuko dituen mugikortasun plan bat onartuko da, bertan oinezko, bizikleta eta motordun ibilgailuen bizikidetza segurua bultzatzeko. Mugikortasun modu segurua, osasungarri eta jasangarrienak lehenetsiz.

Era berean mugitzaile garaian herritarrengandik hainbat iradokizun jasotzen dira. Maria Etxexiki kaleko bizikleten zebra bidea kasu (berria).

- **2015-2016 ikasturteko 7. Proposamena: Gure Hizkuntza eta kultura erakusteko baliabideak jarri. 12-16 urteko ikasleek ez dute euskara ikasteko aukera ez Udal euskaltegian, ezta aek-n ere.**

*Udalaren erantzuna: Zuzendu beharrean aurkitzen naiz, izan ere 12-16 bitarteko gazteek badute aukera euskarazko errefortzu ikastaroa egiteko, hain zuzen ere Udal Euskaltegian izaten dute astean bitan.*

#### **KANPOTIK ETORRITAKO IKASLEENTZAKO "ERREFORTZU IKASTAROAK"**

*2014ean Euskara Aholku Batzordearekin elkarlanean, Zarauzko Udalak kanpotik etorritako ikasleen hizkuntza egoera aztertu zuen. Azterketa horren ondorioz euskara ikasteko laguntza eskaintzea proposatu zen eta hala egiten ari gara 2015eko urtariletik aurrera.*

*2015-2016 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 16 ikaslek hartzen dute parte, astean bi egunetan, ordu beteko saioetan. Irakaslea AEKkoa da eta haurrentzako bideratutako metodologia erabiltzen du.*

*DBHko ikasleak 29 dira. Udal Euskaltegira joaten dira astean bitan, eta ordubeteko saioak egiten dituzte.*

*Egitasmoaren helburua bikoitza da:*

- Alde batetik eskolan ikasten duten euskara indartzea.

- *Bestetik euskara beste testuinguru batean ezagutzea, lagun giroan, jolas giroan... horrela izan daitezkeen kontrako jarrereri aurre egiteko.*

*Egitasmoak oso balorazio ona izan zuen aurreko urtean, eta ikasturte honetan ere halaxe izango dela uste dugu.*

*Badakigu gehiago egin beharrean gaudela, baina ikaskide guztien laguntza ere beharrezkoa izango zaigu, kanpotik etorritako lagunei euskara ikasteko erraztasunak eta animoak emateko benetan garrantzizkoa baita guztion elkarlana.*

#### **EUSKARA-HARRERA IKASTAROA ETORRI BERRIENTZAT**

- *Kanpotik bizilagun berri batek, gurera iristen denean informazio zuzen eta eraginkorra behar du. Horregatik, Inmigrazio teknikaria harrera saiioak antolatzen hasi zen 2012an. Hasieran egun bakar bateko saiioak ziren, baina gero egun batzuetako ikastaro bihurtu ziren. Ikastaroa urria-abenduan egiten zen eta parte hartzaileek balorazio ona egiten zuten.*

*Guztira 50 bat bizilagun berrik parte hartu dute saio hauetan.*

- *Aldi berean, Euskara departamentuak AISA euskara ikastaroak antolatu izan ditu urte askotan etorri berrientzat. Oinarrizko edukiak ematen ziren ikastaro honetan. 60 orduko ikastaroa zen, hiruhilabete batean egiten zena, Udal Euskaltegian.*
- *Bi ikastaro hauek izandako harrera ona ikusita bi egitasmoak uztartzea erabaki zen eta orain, ikastaro bakar batean euskarako oinarrizko esamoldeak eta harrerako edukiak eskaintzen dira Udal Euskaltegian.*

*Ikastaroan izena ematea borondatezkoa eta matrikularako 10 euro ordaindu beharko dira.*

*Urtero bi txanda egiten dira, bat udazkenean eta bestea udaberrian. Aurtengo bigarren txanda oraintxe ematen ari dira.*

*Bukatzeko konpromiso bat eskatu nahi nizueke. Kanpotik datozenek ez dakite, normalean, hemen hizkuntza propio bat dugula, Europako zaharrenetarikoa, guretzat altxor bat dena. Zuei eredu izatea eskatuko nizueke erabilerari dagokionean, beraiek ere ikus dezaten hizkuntza bizia dela, ez eskolan eskatzen zaien zerbait bakarrik.*

#### **2016-2017 ikasturteko Udal Jarraipen Foroan aipaturikoa:**

#### **EUSKARA INDARTZEKO IKASTAROAK**

#### **2016-2017 ikasturteko datuak:**

- LH: AEKrekin kontratauta daukagu zerbitzua. Une honetan 3 irakasle dabilta lan honetan.

Ikasleak:	Ikastola	2 ikasle
	La Salle	3 ikasle
	Antoniano	8 ikasle
	Orokieta	10 ikasle
	<b>Guztira</b>	<b>23 ikasle</b>

Asistentzia oso ona da. Eta gure aldetik eta ikastetxeen aldetik egiten den balorazioa ere bai. Gurasoen konpromisua eskatu da. Oso jarrera ona izan dute.

- DBH: Udal Euskaltegian

Ikasleak:	Lizardi	18 ikasle
	La Salle	1 ikasle
	Antoniano	7 ikasle
	<b>Guztira</b>	<b>26 ikasle</b>

Asistentzia nahikoa ona da. Taldeak egonkortu dira. Balorazioa bidali da ikastetxeetara, ikaslez ikasle.

- **2015-2016 ikasturteko 8.Proposamena:** Zarautzen daukagun kirol eskaintza zabala dela eta biztanlegoaren ehuneko oso handi batek jarduera fisikoren bat egiten duela garbi dago. Kirol federatua ere kopuru eta maila oso altua dago. Aldiz, "EZINDUEK", kirolean parte hartzeko aukera gutxi dituzte (txirrindularitza, pilota,...). Beraz: **Udalaren laguntza jasotzen duten kirol elkarte guztiei (herriko elkarte guztiek jasotzen dute laguntza udalaren aldetik), urtean egun batean beraien kirola ezinduei egokitzera behartu eta taldeak sortzera animatu beharko litzaieke.**

*Udalaren erantzuna: Kirolaren Zarauzko eskaintza, zuek diozuen moduan zabala da; hiru eremutan bereizi genezake.*

- *Eskola adineko kirola - eragileak: udala eta ikastetxeak*
- *Parte hartzeko kirola - eragile nagusia: udala*
- *Errendimendu kirola - eragile nagusia: klubak*

*Era berean, Udal kirol politikaren ildo orokorrari buruz adierazi ondorengo baieztapena:*

*"Jarduera fisikoak inklusiboa eta guztiontzat izan behar du; kirola unibertsala da eta herritar guztien garapen fisiko, psikologiko eta sozialerako ezinbesteko aldagaia da".*

*Horregatik Zarauzko Udalak ondorengo esku-harteak ditu martxan gaur egunean behar berezidunen jarduera fisikoaren eskaintza ziurtatu asmoz:*

- *Eskola kirolean: Gipuzkoako kirol egokituko federazioarekin hitzarmena sinatzen du urtero Udalak. Horri esker, eskola adinean dauden behar berezidunek Eskola kiroleko proiektu integrala daukate aukeran.*
- *Parte hartzeko kirolean: behar berezientzako igeriketa saio bakarkakoak eskaintzen dira eta larunbatetan zumba-kids egokitua, doan kiroldegian, ezgaitasuna duten herritarrentzat.*
- *Errendimendu ibilbidean: Gipuzkoako kirol egokituko federazioarekin elkarlanean Txirrindularitza elkarteak behar berezidunentzako proba antolatzen dute urtero Zarautzen. Era berean, zuen proposamenak klub-eskaintza herritar ezinduentzat zabaltzeko aukera ematen du. Arraunean hainbat saiakera izan dira, baina ez da nahikoa. Landuko dugu gipuzkoako kirol egokituko federazioko teknikari adituekin diru-laguntzen bidetik.*

*Gainera, alkateak honakoa galdetu die bertaraturiko guztiei: begiak estalita korrika egin al duzue inoiz? Eta norbaiten laguntzarekin egingo al zenuten? Erantzunak baikorrak zirela ikusirik, halako ekitaldi bat antolatzeko hitza eman du alkateak.*

#### **2016-2017 ikasturteko Udal Jarraipen Foroan aipaturikoa:**

*Gipuzkoako kirol egokituko federazioarekin Zarauzko Udalak duen hitzarmena hausnartu eta osatu egin da azkenengo urtean: aniztasun funtzionalak dituzten herritarrei zerbitzuak hobetuta ildo hauetan:*

- a) Eskola orduetan behar bereziak dituzten Institutuko ikasleei uretan jarduerak.*
- b) Eskola kiroleko ohiko programan kirol egokituko ligaxka eguna(k).*
- c) Eskola kirola egokitua, programa eta jarraipena (familiekin).*
- d) Eskola ordutik kanpok igeriketa egokituan arreta pertsonalizatua*
- e) Aholkularitza Udalar kirol azpiegiturak eraikitzeke garaian.*
- f) Aholkularitza Kirol Departamentuari bezero behar berezidunek behar dituzten bestelako beharretan.*
- g) Txirrindularitza egokituaren proba bi egunetara pasatzea eta kolaborazioa bertan.*

- **2015-2016 ikasturteko 9.Proposamena:** Baldintza ekonomiko eskasak dituzten ikasleen familiekiko ekitatea lortzearren... **Gazte hauen eskolarizazioan laguntzea (matrikulak, bekak, garraioa, eskola partikularrak emateko baliabideak,..).**

*Udalaren erantzuna: Zarauzko udaleko bi departamentuk (Hezkuntza eta Inmigrazioa) dagoeneko pauso batzuk eman dituzte arazo ekonomiko eta didaktikoak dituzten ikasleei laguntzeko. **Proiektuak "ikaslagunak"** izena du, eta proiektu honen bitartez babes osoa eta zabala eskaini nahi da.*

*Irakasle boluntario batzuk baditugu eta elkartea osatzeko behar duten laguntza eskainiko diegu. Elkartea osatu behar da udalak juridikoki gauzak txukun egiteko. Udal Eskola Kontseiluan eskoletako zuzendariei boluntario gehiago eskatuko dizkiegu eta boluntario talde polita lortzen dugunean, eskolek proposatzen dituzten ikasleei boluntario bat jarriko diegu. Ideia da boluntario bakoitzak ikasle bat edo bi izatea; gehiago ez. Horrela hobeto lagunduko die.*

*Datorren ikasturtean jarri nahi da martxan; 2016/17an. Proiektu honen helburua ez da lanak egiten laguntzea bakarrik, ikasturtea errazagoa izan dakien. Beste helburu garrantzitsu bat ere badu. Azken*

*finean, haur eta gazte hauetako batzuk beren sorterrria eta azken urtetan izan duen familia utzi eta hemen txertatu behar dute, hizkuntza berriarekin, kultura eta ohitura berriekin, aspaldian ikusi ez duten amarekin... Egoera gogorra da, eta guk ikaslaguna programarekin erreferentea izango duen pertsona bat jarri nahi diogu guzti honetan laguntzeko.*

#### 2016-2017 ikasturteko Udal Jarraipen Foroan aipaturikoa:

Hortaz gain, Zarauzko udalak 2016an 125.000 € diru poltsa bat onartu zuen familiek dituzten hainbat gastu ordaintzen laguntzeko asmoz. 115 zarauztar familiek laguntza hau jaso zuten.

Diru-laguntza gastu guzti hauek ordaintzeko zabaldu zen:

- Eskolarako ikasleek behar dituzuen era guztietako materiala eta liburuak.
- Kirola kuotak.
- Eskolako garraio gastuak 50 km baino urrutiago joan beharko balitz.
- Adingabeak zaintzeko pertsona bat kontratatuzeko.
- Argindarra ordaintzeko.
- ...

2017an ere diru-laguntza hauek mantentzeko asmoa du Udalak.

- Konpromisoa bete dute eta horretan ari dira lanean; gehigarririk ez dute kontatzeko.

Ikaslaguna programaren bitartez (irakasteko, ikasteko eta laguntzeko) etxeko lanak giro goxoan egiten laguntzeko aukera luzatzen da. Bolondresak garatzen dute (gehienak irakasle jubilatuak, 26, eta 46 ikasleak hartzen dute parte. Azaroaren 15ean hasi ziren eta oso balorazio positiboa egiten dute.

Ondoren, herriko ikasleek ere ekitatearen inguruan emandako aurrerapausoak zeintzuk izan diren azaltzeko aukera izan dute, bai ikastetxe mailan eta baita norberaren egunerokotasunean ere:

La Salle Ikastetxeko ikasleek honakoak aipatu dituzte, besteak beste:

- Emaus, Cáritas eta Saharautz elkarteak antolaturiko ekimenetan parte hartu dute.
- Tratu txarren aurkako kanpainan parte hartu dute.

\*Udalak "baratze solidarioa" martxan jarri du eta bertan jasotako uzta Caritasek kudeatzen du.

Orokietan Herri Eskolako ikasleek honakoak aipatu dituzte, besteak beste:

- Guztion gauzak guztion artean zaindu behar direla eta horretan saiatzen dira.
- Etxean egin beharreko lanen zerrenda eta horien banaketa idatziz jasotzeko saiakera egiten ari dira.
- Euskararekin ikaskide atzerritarrei laguntzen diete.
- Atzerritarren beharrei bai, baina bertakoenganako beharrei ere arreta jarriko diete.
- Bidegorri eta zebrabideei erabilera egokia ematen saiatzen ari dira.

\*Eskaera: bizikleteroaren estalketa eta berogailuaren konponketa.

Lizardi Institutuko ikasleek honakoak aipatu dituzte, besteak beste:

- Siriako errefuxatuei laguntzeko arropa- eta elikagai-bilketak burutu dituzte.
- Itsuen egoerara egokitzeko helburuarekin, begiak estalita kirola egin dute.
- Bidelaguna programa garatu dute: ikasleek beharra duten ikasleei laguntzeko.
- Atzerritarren integrazioan laguntzen dute.

Antoniano Ikastetxeko ikasleek honakoak aipatu dituzte, besteak beste:

- Atsedean garaian futbola soilik ez, bestelako gune eta erabilerak ere sustatzeko urratsak eman dituzte.

Oteitza Lizeoko ikasleek honakoak aipatu dituzte, besteak beste:

- 2. eskuko azoka antolatu dute (liburu trukaketa).
- Saharako errefuxatuei laguntzeko bilketan parte hartu dute.

Salbatore Mitxelena Ikastolatik udalak parekidetasunaren inguruan emandako erantzuna txalotu dute.





Azkenik, guztion erantzukizunaren garrantzia, errespetua eta desberdinaren onarpenaren garrantzia azpimarratu dute udal ordezkariak, bullyinga ekiditeko taldearen jarrera oso garrantzitsua dela gaineratuz.

Behin aipatu beharrekoak aipatuta, bertaraturiko guztioi eskerrak eman, eta taldeko argazkia eginez amaiera eman zaio Udal Jarraipen Foroari.



**HURRENGO BILERA, UDALBATZARRA:**  
Maiatzak 17, Zarauzko Udalbatzarra